

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Erasmus fenomenoak 25 urte

Arrastoak

Guztiok gara Howard Carter... Interneten

WWW.WORDPRESS.COM



WWW.ERASMUSWORLD.COM

Ezkerrean, Erasmo Rotterdamgoa (1466-1536); Europako ikasleen truke-programa ezaguna haren omenez izendatu zuten duela 25 urte. Eskuinean, Bilboko Erasmus festak iragartzen dituen afixa.

BRUSELA, 1986KO URTARRILA. Sei urtez Europako unibertsitate ikasleen arteko trukeen probak egin eta gero, Erasmus Programaren proposamena Europako Batzordera iritsi zen lehen aldiz. Orduan Batasuneko kide ziren herrialde gehienak alde egon arren, Batzordean pisu gehien zutenek –nagusiki, Frantziak, Alemaniak eta Erresuma Batuak– ordurako bazituzten beren truke-programak eta proposamena baztertzea nahi zuten. Negoziazio gogor eta luzean ondoren, azaroaren 28an proposamena atzera bota zuten. Baina hezkuntza erakundeen eta gazte mugimenduen presiopean, gaia berriro iritsi zen Kontseilura abenduaren 15ean. Erasmus Programa handik hiru egunera onartu zuten eta, zenbait formalismo legal gorabehera, ofizialki 1987ko ekinaren 15ean jarri zen abian.

1987-1988 ikasturtean 3.244 ikaslek osatu zuen lehenengo Erasmun belunaldia. 2006an, berriz, 150.000 ikaslek baino gehiagok baliatu zuten

truke-programa, Europako ikasle biztanleriaren ia %1ek. Gaur egun 31 herrialdetako goi mailako 4.000 hezkuntza erakunde baino gehiago daude programaren barruan. 2007an, Erasmusek hogeitun urte bete zituztean, dagoeneko bi milioi pertsona baino gehiago ziren programan parte hartu zutenak, eta 2012an hiru milioitara iritsiko direla aurreikusi dute.

Erasmus ingelesezko *European Region Action Scheme for the Mobility of University Students* izenaren akronimoa izan arren, siglak propio ahokatu arazi zituzten programa Erasmus Rotterdamgoaren omenez izendatzeko. Erasmok Europa zeharkatu zuen dogmatismoaren aurkako borrokan eta ezaguera zabaltzeko asmoz. Eta hiltzean, ondasunak Suitzako Basileako Unibertsitateari utzi zizkion. Baina Erasmus, esperientzia akademikoa baino gehiago, fenomeno sozial bilakatu da. Eta, gehientzat, Erasmoren espirituan gainerik, Erasmus festa entzutetsuengatik da ezaguna.

GRIFFITH INSTITUTUAK (Oxfordeko Unibertsitatea, Erresuma Batua) Tutankhamoni buruzko artxiboaren digitalizazioa burutu berri du, hamabost urtez horretan jardun eta gero, eta Interneten jarri du, www.griffith.ox.ac.uk/gri/4tut.html helbidean.

Interneteko artxibategiak duela ia 90 urte Howard Carterrek aurkitutako 3.150 objektuen irudiak eta fitzak jasotzen ditu (Carterrek berak betetakoak). Horrez gain, zirriborroak, 2.000 argazki inguru eta Carterren egunkariko milaka orrialde daude aztergai. Orain eskura dagoen material horren % 70 ez da sekula akademikoki argitaratu eta gune berriak Carterrek abiatutako lana osatzen joateko aukera ematen die ikerlariei.



WWW.GRIFFITH.OX.AC.UK

Howard Carterrek hamar urte eman zituen Tutankhamonen hilobia industen; Griffith Institutuak hamabost urte behar izan ditu webgunea osatzeko.